

MARKINA-XEMEIN / Haurrengan irakurketa sustatzeko egitasmoa, martxan

Galtzagorrik antolatutako egitasmoagaz bat egingo du Herri Bibliotekak; ikastaroak eta hitzaldiak egingo dira.

EIDER MUGARTEGI

0-6 adin tarteko haurrengan irakurketa ohiturak sustatzeko helburuagaz, Galtzagorri Elkarrekin antolatutako Bularretik mintzora egitasmoa eskainiko dute Herri Bibliotekan. Haur txikien gurasoei eta hezitzaileei zuzenduta dago.

Euskal Herrian berria bada ere, AEBetan, Britainia Handian, Italian, Suedian eta Katalunian egindako antzeko egitasmoen ildo berean dago. Herri Bibliotekak eroango du egitasmoaren hedapenaren ardura. Txoko berezi bat antolatuko da haur txikien bibliografia, kartelak, gomendiozko liburuxkak eta bestelako informazio guztiak denon eskura ipintzeko, eta bertan emango dira ikastaroak eta maileguan eroango diren maletak.

Egitasmoak fase desberdinak ditu, eta Markina-Xemeinen, iaz, bigarren fasea aztertu eta probatu zen. Aurten, berriz, lehenengoa emango dute. Zortzi orduko ikastaro bi emango dira, bata gurasoentzat eta bestea Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako irakasleentzat. Ikastaroak 20 lagun ingururentzat izango dira.

Irakasleek azaroaren 2an, 16an, 30ean eta abenduaren 14an izango dute ikastaroa, 16:30ean, Herri Bibliotekan. Gurasoek, berriz, azaroaren 11n, 18an, 19an eta 25ean emango dute ikastaroa, 17:30ean hasita.

Hitzaldi bi

Pello Añorga ipuin kontalari eta idazleak emango die gurasoei ikastaroa, haur txikiei zelan kontatu, kantatu eta abar erakutsiko die. Irakasleena, osteratzen, haur literaturan erreferente den Itziar Zubizarretak emango du. Haur literatura eskola curriculumean nola sistematizatu erakusten die.

Beste alde batetik, hitzaldi bi egingo dira guztientzat. Hitzaldi horietara ikastaroetan parte hartu ez dutenak ere joan ahalko dute. Juan Carlos Alonso psikologoak eskainiko du azaroaren 26ko hitzaldia, Haur Literaturaren eragina haurren garapenean, eta Juan Kruz Igerabide haur literaturan dagoen idazle punterengoetakoak abenduaren 2koa, Bularretik Mintzora: Poesia hizkuntza afektiboaren oinarrian. Biak 17:30ean izango dira, eta aurretik izena eman beharko da Herri Bibliotekan.

Liburuz betetako maletak maileguan

Aste honetatik aurrera eman daiteke ikastaroetarako izena ere. Hitzaldietarako moduan, Herri Bibliotekan eman beharko da.

Beste alde batetik, egitasmo horren barruan, zerbitzu berri bat emango du Herri Bibliotekak. Maleta batzuk izango ditugu ondo-ondo aukeratutako liburuekin, eta maleta osoa maileguan etxera eramateko aukera egingo da, azaldu du Igor Idoeta Herri Bibliotekako arduradunak. Irakurtzen ematen diogunean, haurren garapen intelektual, emozional, soziala eta, aldi berean, hizkuntzarena estimulatu ditugu, azaldu dute antolatzaileek.